

» **TELEGRAMA**

Nafarroako Bertsolari Txapelketako lehen kanporaketa Iruñeko Katakarak kultur gunean jokatu da abenduaren 16an, ostiralez, 17:00etan **STOP Iduzkilore konpainiak** Xabier Mendigurenen *Telesforo ez da Bogart* antzerki obra jokatu du Senpereko Larreko aretoan, abenduaren 17an, larunbatez, 20:30ean **STOP** Donostiako Kutxa Kultur Artegunean, **Alberto Schommer** argazkilariaren *Modernitaterantz* erakusketa zabalik dago abenduaren 2tik martxoaren 19ra bitartean **STOP Korrontzi** eta **Gwendal** musika taldeak **Gasteizko Aitzina Folk jaialdian** izanen dira Mendizorrotza polikiroldegian, abenduaren 27an, asteartez, 19:30ean **STOP**

» **DISKOA**

Pertsona bat, belaunaldi bat, jarrera bat



Iker Barandiaran



Amaierarik gabeko ibilbidea

JULHNE27

DVD2. Autoekoizpena, 2016

Jul Bolinaga arrasatearraren omenaldian lagun musikari andana bildu zen. ARGAZKIA: IKOR KOTX



RIP taldearen sortzaile eta beste hainbat musika proiektutan aritutako Jul Bolinaga arrasatearrari omenaldi itzela egin zioten bere herrian 2015eko ekainean, motorren eta musikaren zale amorratua zenaren ibilbide emankorra matrikula kutsuko izenean batuta. Gitarra jotzailearen lagunen burutazioa eta ekimena izan zen, eta herriko jaietako egitarauan sartuta Arrasateko Udalak ekimena bera erraztu eta lagundu zuen. Arrasateko Monterron parkean ospatutako jaialdi horretan bizi izandakoa oso zaila izango da errepikatzea: Euskal Herriko –eta kanpoko– musika-eszenako iraganeko eta gaur egungo belaunaldi desberdinek parte hartu zuten, batzuek agertoki gainean eta beste batzuek horren azpian. Baina guztiak pertsona bat, belaunaldi bat, gauzak egiteko modu bat omentzen eta ospatzen jai giroan, berak egingo lukeen bezala. Han bizi izandakoaren lagin

esanguratsu bat Jul Lagunak ekimenak kale-ratutako DVD bikoitz honetan jasota dago.

DVDaren lehenengo blokean Jul nekazezina izandako musika talde askotariko batzuk jasota daude, gau hartan zuzenean aritu zirenak: The Clashen kantutegia lagun artean parteka-

tzeko sortutako Magnificent 7 proiektua, Arrasatekoa; punkaren esentzia eta desparpajoa berpizteko Txerra eta Jul Bolinaga anaien Gasteizen beste lagun batzuekin batera sortutako Karrocerias Betoño; aipatutako anaien punk-rock gitarraeroena errebindikatzeko zakur zahar gehiagorekin sortutako Piztu Punk!; eta azken garaian banjoarekin txoratzen sortutako The Potes taldea, folka, parranda gogoa eta punk esentzia batzen dituen.

DVDaren bigarren blokea, berriz, RIPen kantutegiak osatzen du eta Jul-en anaia zein RIPen sortzaile ere baden Txerra bateriaren atzean izan zen lanean (eta disfrutatzen) kontzertu osoan. Bitartean, iraungitze datarik ez duten eresi garratz horiek abesten zein interpretatzen dozenaka abeslari, gitarra eta baxu jotzaile txandakatzen joan ziren parke zoragarri horretako agertokian, kantutzar horiek bere egiten eta gurekin partekatzen. Aspaldiko aurpegiak arimaz gaztetuta eta oso sasoi onean ikusi genituen (Josu Zabala, Eneko Bap!, Fermin Muguruza, Drogas, Pikotas Odio, Andoni Delirium Tremens, Niko MCD, Mamen eta Loles Vulpes, Poti Cicatriz en la Matriz, Isa IV Reich, Nabo Cirrosis eta abar), beste belaunaldi batzuekin (Soziedad Alkoholikako kideak, Fer Apoa, Juan Governors, Podri Rat-Zinger, Juanra Kop eta abar) eta Arrasateko hainbat eta hainbat musikarirekin, Jul bidelagun izan zutenak, bat eginda. ■